


# Xabier Zabaltza

Tutera, 1966. Aita iruindarra eta ama tuterarra ditu. Amaren ama berriz, katalana. Zortzi urte bete arte Bartzelonan bizi izan zen. Itzultzailea da Nafarroako Gobernuan. Historian doktore eta nazionalismoetan aditua: *Mater Vasconia. Lenguas, fueros y discursos nacionales en los países vascos* eta *Una historia de las lenguas y los nacionalismos* liburuen egilea. Mundu akademikotik aparte dabil, bakarti. *Gu, nafarrok* (Alberdania) karrikaratu du orain berrian: saiakera laburra bezain iradokigarria. Pentsalaria bezala ekarria izaki, berarekin ukaniko solasaldiak pentsarazteko parada berretsi digu.

**MIKEL ASURMENDI**  
Argazkiak: Josu Santesteban



## «Nafarroan sekulako probintziakeria dago»

Pentsamenduaren garai ahulean bizi omen gara. Hartara, osasungarria da solas sendoak urratzea: “Gure ziuertasun eza erradikalkeria ezkututzen da askotan. Gero eta ez-segurugoak izan gero eta ‘erradikalagoak’ izaten gara maiz. Oso jarrera edipikoa da. Nazionalismoetan ere ageri da hori. Konfiantza gehiago behar dugu gure baitan” diosku Xabier Zabaltzak.

Euskal Herria eta Espainia hizpide ari gara, Nafarroa bitarteko: “Zer diferentzia da hipermerkatuetara joaten den espainol eta euskal nazionalisten

artean? Kontsumismoaren erresuma da nagusi gurean, horretan ez dago diferentziarik. Beti ari gara bandera gora eta behera, hizkuntza gora eta behera –gehienetan erdaraz–, baina ez gara funtsezkoaz –etxebizitzaz, elikagaiez, erregaiez...– eztabaidatzeko gai. Horrek gure arteko ‘gatazka’ azalekoa dela ageri du. Kontua da ekonomikoki oso ondo bizi garela, eta niretzat gatazka are mingarriagoa da, penagarria” azaldu digu *Gu, nafarrok* saiakeraren egileak.

Historiaren bilakabidean orainak du munta, alta bada, geroa ere ageri

da solasean: “Gero eta herritar gehiago dira guraso nafarrak ez dituztenak. Horiek, oro har, irrikaz daude gure gizartean sartzeko, baina ez euskara ikasteko, guk adina kontsumitzeko baizik. Nazionalismoek ez diote etorkinen aferari erantzuten ordea, ez Espainiakoak ez euskal nazionalismoak. Eta arazoa zinez serioa da”.

Nafarroan euskara normaltasunez onartarazteko erdibidea bilatu behar dela dio, muturreko joerak baztertu eta kontsentsua hobetsi: “Ez naiz oraingo egoerarekin konformatzen,



**“Aberrien eta nazionalismoen inguruan manipulazio handia dago. Nik aitor dut ezin dela manipulaziorik gabe bizi, onartu behar duzu erabiliko zaituztela”.**

Espainiako armarrria da, baina koroa kenduta (irriak). Nafarroa liskarrerako zioa izan daiteke betiko edo konponbidearen gako. Nafarroak bide egin lezake bi nazionalismoen artean, baina horretarako baldintza da gure buruaz ziur sentitzea, egun ez dena.

**“Nafarroa abertzaleen huts egiterik handiena da” esana duzu.**

Bai. Euskal abertzaleek ez dute Nafarroa ulertu. Erdialdea ozta-ozta ezagutzen dute. Erriberara *terra inkognita* da haiendako. Erriberara eta Erdialdea ozta-ozta ezagutzen badituzu, Nafarroa ez duzu ezagutzen. Abertzaleek X-XII. mendeko Nafarroarekin amesteko joera dute. Hori gertatzen da gaurkoa interesatzen ez zaielako. Orduko Nafarroarekin amesteko joera dago oro har.

**“Jendea euskaldun edo espainol identifikatzen da, ez da nafar sentitzen” ere esana duzu. Harriduraz hartu dut nik.**

Ez dut hori esan. Eta esan banuen, ez nuen ongi esplikat. Ez dut jendea nafarra sentitzen ez dela esaten, nafar sentimenduak beste zerbait ezkututzen duela baizik, inportanteagoa dena

**“Batzuendako Nafarroa ez da inportanteena, Espainia baizik, eta besteendako ere ez, inportanteena Euskal Herria delako”**

Nafarroa integratua nahi dut. Euskalduna edo espainola izatea hain inportantea ez den Nafarroa nahi dut”.

**Zergatik Gu, nafarroak liburua?**

Nahiko aspertuta nago Nafarroako panoramaz. 30 urte eman dugu nork bere mintzaldia botatzen –gure buruari euskaldunak edo espainolak garelako errepikatzen– ondokoak dioena aintzat hartu gabe. Nafarroak garenaz sintesia egiten saiatu naiz liburuan.

**Liburuaren tesia berriz, zein izan liteke?**

Nafarroan bi komunitate sortzeko arriskua dagoela iruditzen zait, arriskua dela diot, sortu litekeela, ez badaudela. Batzuek Nafarroa ez da inportanteena, Espainia baizik, eta besteendako ere ez, inportanteena Euskal Herria delako. Hortaz, Nafarroa umezurtz geratu da nolabait. Ez badugu nolabaiteko izaera politiko komuna osatzen komunitateen arteko liskarra gertatzeko arrisku handiagoa dago geroan.

Liburuaren azala iradokigarria da. Euskal Herriko eta Espainiako armarrriak Nafarroako kateek lotuta ageri dira.

benetan. Denek nafarrak direla diote, baina batzuek nafartasun horrek euskal herritartasuna ezkututzen du eta besteendako espainiartasuna. Arazoa da, nafartasun horiek ez dutela komunitatea sortu.

**Zu nafarra izaki, nola azaltzen duzu zure burua?**

Oso apal. Nire burua identifikatzeko lehen hitza euskalduna da. Ondoren espainiartasuna, nafartasuna hirugarrenik. Europartasuna ere sartzen dut. Europan edo kanpo gaudenean, gure burua azaltzeko horrelako sentimendua ere izaten dugu. Sentimendu asmatua, gainerako guztiak bezala.

**Espainiartasuna nolakoa?**

Nire espainiartasunak ez du jite politikorik noski, kulturaren eta historiaren aldetik jasotako sentimendua da.

**Aberriak ez dituzu gustuko. Tomas Meaberen “Mi patria empieza en mí y termina en ninguna parte” aipua hizpide izan duzu liburuan.**

Meabe sozialista zen, sozialista espainola. Hori ukazina da. Baina Meabe ez zuen hori Espainiaren batasuna justifikatzeko esan, gaur egun batzuek egiten duten bezala. Aberrien eta nazionalismoen inguruan manipulazio handia dago. Nik aitor dut ezin dela manipulaziorik gabe bizi, onartu behar duzu erabiliko zaituztela.

**Adibiderik?**

Begiratu Google-n. Nire artikulua batzuk Valentziako eskuin muturreko webgune batean daude. Irakurri gabe, noski. Hori gutxienekoa da [ironiaz]. Nik “lurralde batean hitz egiten den hizkuntza dialektoa edo hizkuntza ote den erabakitze inportanteena jendearen borondatea dela” diot. Haiek “valentziera ez da katalana” gehitu dute. Nik ez dut azken hau esan, noski. Beraz, manipulatuta naute.

**Lauaxetaren “Naparruan ezta aberririk” aipua ere oso adierazgarria da.**

Eta aitortu behar dut, neronek Lauaxeta manipulatuta dudala. Lauaxeta ez baitzen Nafarroako gatazkaz ari. Aipua Amairuko poemaren zatia da. Amairuko gerraz ari da, Nafarroaren independentziaren galeraz ari da. Ez du zerikusirik zuzena nik landu dudana gaiarekin, baina aipua egokia iruditu

## HISTORIAREN GAINEKO IKUSPEGIAK

## “Herri baten eskubideak ez dira historian oinarritzen”

**NAFARROAKO HISTORIAZ.** Bi muturren artean gabilta: batetik historiografia akademikoa, politikoa eta instituzionala nagusi da, oraingo estatusa justifikatzeko ikuspegi kontserbadorea. Bestea abertzaleek eraikitako historia da, disidentea eta konplexuz betetakoa, kalitate gutxikoa askotan. Nafarroaren ezaugarrietariko bat Estatuaren aurkako erresistentzia dela justifikatzen saiatzen da eta hori ez da errealista.

**NABARRALDE EKIMENAZ.** Ez dut inor mindu nahi, baina niretzat euren argudioek ez dute bururik ez buztanik. Herri baten eskubide nazionalak ez dira historian oinarritzen, eskubideak bizilagun gehienek borondatean oinarritzen dira. Antso Handiaren Nafarroa errebindikatzeko badugu, Tuteran mairuen eremua zela esan beharko genuke. Zaila da historiaren kontzepzio sasihistorizista ikuspegi demokratiko batekin uztartzea. Proiektu nazionala eraikitzeko egun bizi diren herritarren borondateak balio du, ez du balio duela mila urte bizi izan ziren errege-erreginen borondateak.

**NAFARROAZ ETA VALENTZIAZ.** Historia antzekoa dute gauza askotan. Valentziako XIX. mendeko ia inork ez zuen ukatzen Valentzian katalana hitz egiten zela. Denek aitortzen zuten Katalunia eta Valentziaren arteko lotura. 1901ean, Lliga Catalana alderdia sortzean, katalanismo kulturala politikoa bihurtzen hasi zen. Erregionalismoa bultzatzen zutenak kontserbadoreak ziren eta batzuk baztertuak sentitu ziren. Gainera, Estatuak beste modu batean antolatzen bazen haiek zeukaten kontrola galdu zezaketek beldur ziren. Nafarroan ere antzeko zerbait gertatu zen.

**EUSKARAREN HISTORIAZ.** Euskal Herriarekiko eta euskararekiko atxikimendu sendoa izan dut betidanik. Aita eta ama ez dira euskaldunak, baina modu hertsian *vascos* sentitzen dira. Historiografia instituzionalean hizkuntza ez da aipatzen, eta hori okerra eta mingarria da. Batzuek uste dute Nafarroako historiografia zuzena egin daitekeela euskara aipatu gabe. Nafar askok oraindik ez daki Nafarroan XIX. mendera arte nafar gehienek hizkuntza euskara zela.

zait. Historiaren irakurketa egitean burutzen dugun manipulazioa begibistan uzteko ere egin dut, nolobait.

**Zazpiak Bat kontzeptua nahiago duzu Euskal Herria baino. Liburua Euskal Herriko hiriburuan egin dela idatzi duzu hala ere.**

Hori ere nahita egin dut. Denok ditugu gure kontraesanak, argi gera bedi. Ez gara konturatzen zer eskasiak dituen Euskal Herri kanoniko honek. Euskal Herriko mapa [egongelan du paratua, hari begira jarri gara] erakargarria da, maitagarria. Bertan hainbat hizkuntza hitz egiten dira. Areago, Nafarroako zati batzuetan ez da inoiz euskara mintzatu —ez Bizkaian ez Araban ere—. Horri Euskal Herria deitzea ondo iruditzen zait, baina konturatu behar dugu zertaz ari garen. Euskal Herria deitzeagatik hizkuntza bakarria mintzatu behar dela pentsatzeko joera dago eta hori ez zait errealista iruditzen.

**Autonomien Estatuaren atala Jaime Ignacio Del Burgo eta Xabier Arzalluzen aipuen harian ehundu duzu.**

Nafarroako eskuinaren barruan bi joera izan ziren trantsizioan. UCDren inguruan bata eta berehalaxe sortu zen UPNren inguruan bestea. Baturik daude orain, orduan ez. Ez dut dudarik, gau-

zak beste era batean egin izan balira Del Burgoren aldekoak ederki asko egokituko ziratekeen lau probintziak osaturiko autonomia erkidegoan. Aizpuna eta besteak ez, jakina. Zer esan —nafarra naizen aldetik— EAJK Nafarroarekiko izan duen utzikeria galantaz?

**Nafar gehienak espainiar sentitu arren, kulturaz euskal herritar sentitzen direla diozu.**

Bai. Denok izan dugu arbaso karlista edo liberalen bat, foruzalea. Nire aitaxi Tuterakoa zen eta EAJKoa. Nire amak ez zekien hori gerraren ondoren izugarrizko isiltasuna izan zelako. Gure amak bere aita jeltzalea zela jakin du nik esan niolako. Dena den, gehienendako inportanteena Nafarroa dagoen moduan mantentzea da, Espainiaren batasunean alegia.

**Egungo historiografian karlistaden foruzaletasuna gutxiesteko joera dagoela diozu.**

“Abertzaleek ez dute Nafarroa ulertu.

Erdialdea ozta-ozta ezagutzen dute.

Erribera *terra inkognita* da haiendako.

Erribera eta Erdialdea ozta-ozta

ezagutzen badituzu,

Nafarroa ez duzu ezagutzen”

Gutxiesteko idatzi dut, ez dut ukatu hitza erabili. Afera hau da: lehenbiziko gerra karlista ez zen foruengatik hasi. Egia da liberalak eta karlistak saiatu zirela bakea eta nolobaiteko konponbidea lortzen foruetan oinarrituta. Beraz, esan dezakegu foruek ez zutela eraginik hastapenean izan, baina nolobaiteko eragina izan zutela bukaeran. II. Karlistadan berriz foruzaletasunak eragin garrantzizkoagoa izan zuen. Batzuek esaten dute karlistaldiak foruengatik gertatu zirela erabat, baina ez da egia. Bestetzuek foruek ez zutela inolako eraginik izan karlistadetan eta hori ere ez da egia. Horregatik erabili dut gutxietsi hitza.

**Ororen buru, nafarrak ez zaretela hain diferenteak diozu.**

Hori da. Baina nafarren egoarendako oso gogorra da hori. Ez gara diferenteak Euskal Herriko, Espainiako eta Europako barnean garelako. Eta bi nafartasunez ari naiz, biak ez dira elkarrekiko hain diferenteak, nafartasuna ez da hain diferente beste sentimendu erregional edo nazionaletikiko. Baina hemen sekulako probintziakeria dago, handiena instituzioek bultzatuta. Eta egia esan ez dut hortik ateratzeko modurik ikusten. Liburua hortik ateratzen laguntzeko gogoeta saio xumea da. ■